

ESTABLEZIMENTU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK. 2021eko martxoa

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak % 5,8 gehitu dira 2021eko martxoan

Hotel-establezimenduen % 31,6k ez dute jarduerarik izan 2021eko martxoko egun bakar batean ere

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko martxoan 158.966 gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, 2020ko martxoan baino % 5,8 gehiago. Sarreraren urte arteko hazkundera % 33,1ekoa izan da, eta 2021eko martxoan 89.930 sarrera izan dira.

Urtetik urterako aldaketa horien intentsitatea ulertzeko, kontuan izan behar da ezen 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zela, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko, zeinak mugikortasuna premia biziko jardueretara mugatu baitzuen.

Lurraldeei dagokienez, Arabak % 90,7ko igoera izan du sarreretan 2021eko martxoan, 2020ko martxoarekin alderatuta, eta % 48,6koa gaualdietan. Bizkaian % 17,2 gehitu dira sarrerak, eta gaualdiak % 5,1 jaitsi dira. Gipuzkoaren kasuan, 2021eko martxoan sarrerak eta gaualdiak % 34,5 eta % 4,9 igo dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021ko martxoa

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/03	m/m-12 (%)	2021/03	m/m-12 (%)	2021/03	2020/03
EUSKAL AE	89.930	33,1	158.966	5,8	1,77	2,22
Estatukoak	76.710	79,4	133.222	41,5	1,74	2,20
Atzeritarrak	13.220	-46,7	25.744	-54,1	1,95	2,26
ARABA/ÁLAVA	15.438	90,7	29.214	48,6	1,89	2,43
Estatukoak	13.562	124,1	25.512	69,7	1,88	2,48
Atzeritarrak	1.876	-8,2	3.702	-20,0	1,97	2,26
Vitoria-Gasteiz	11.027	90,9	22.215	46,8	2,01	2,62
BIZKAIA	37.025	17,2	67.943	-5,1	1,84	2,27
Estatukoak	32.835	67,0	58.324	36,4	1,78	2,17
Atzeritarrak	4.190	-64,9	9.619	-66,7	2,30	2,42
Bilbao	23.348	6,3	40.091	-13,5	1,72	2,11
GIPUZKOA	37.467	34,5	61.809	4,9	1,65	2,12
Estatukoak	30.313	77,8	49.386	35,9	1,63	2,13
Atzeritarrak	7.154	-33,7	12.423	-45,0	1,74	2,09
Donostia / San Sebastián	21.579	28,2	34.025	-0,2	1,58	2,03

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Portaera oso desberdina ikusten da bai sarreretan bai gaualdietan, pertsonen ohiko bizilekuaren arabera. Hala, jatorri atzerritarreko sarrerak % 46,7 jaitsi dira 2020ko martxoaren aldean, eta Estatukoak, berriz, % 79,4 igo dira. Gaualdien kasuan, atzerrian bizi diren pertsonen kopurua % 54,1 jaitsi da, eta Estatuko jatorria duten pertsonen gaualdiak % 41,5 igo dira.

Batez besteko egonaldiak behera egin du aurreko urteko martxoaren aldean: 2,22 egunetik 1,77ra. Gipuzkoan, 2020ko martxoko 2,12 egunetik 2021eko martxoko 1,65 egunera jaitsi da; Bizkaian, 2,27 egunetik 1,84 egunera. Araban jaitsiera nabarmenagoa izan da: 2020ko martxoan 2,43 egun igaro zituzten batez beste bisitariek, eta aurtengo martxoan 1,89 egun.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko martxoa

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/03	p.p.*	2021/03	p.p.*	2021/03	m/m-12 (%)	2021/03	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	22,4	-7,5	30,3	-9,2	65,78	-3,7	19,96	-26,1
ARABA/ÁLAVA	24,7	0,6	34,0	-0,4	59,97	5,0	20,37	3,9
Vitoria-Gasteiz	24,7	0,7	35,7	0,6	58,92	9,2	21,02	11,1
BIZKAIA	20,1	-9,7	28,3	-12,2	63,05	-10,7	17,86	-37,6
Bilbao	18,9	-12,5	25,5	-16,0	65,50	-14,5	16,71	-47,4
GIPUZKOA	24,3	-8,4	31,4	-9,1	71,90	3,6	22,56	-19,7
Donostia / San Sebastián	26,3	-8,7	32,8	-9,2	83,14	0,9	27,29	-21,1

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Plazen arabera zein eskainitako logelen arabera okupazio-mailek beheranzko joera izaten jarraitzen dute martxoan, jarduerarik izan duten hotel-establezimenduen artean, urte arteko terminoetan. Plazakako okupazio-maila ehuneko 7,5 puntu jaitsi da, eta logelakakoa 9,2.

Lurraldeka, Bizkaiak izan du jaitsierarik handiena, bai plazakako okupazioari dagokionez (2020ko martxoan erregistraturikoa baino ehuneko 9,7 puntu txikiagoa), bai eskainitako logelen arabera okupazioari dagokionez (ehuneko 12,2 puntu txikiagoa). Kaltetuen izan den hiriburua Bilbo izan da martxoan: plazen eta logelen okupazio-mailak ehuneko 12,5 eta 16,0 puntu jaitsi dira, hurrenez hurren.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleek, ADRren (eguneko batez besteko tarifa) bilakaera neurritzkoa bada ere eta lurraldeen arabera ezberdina izan arren, agerian uzten jarraitzen dute gaur egungo osasun-krisiak hotel-sektorean duen eragina. RevPar (gela erabilgarriko diru-sarrera) % 26,1 jaitsi da Euskal AEn martxoan, urte arteko terminoetan, eta 19,96 eurokoa izan da. Bizkaian % 37,6ko jaitsiera izan da, eta Gipuzkoan % 19,7koa, baina Araban, aldiz, % 3,9 igo da. Hiriburuetan, jaitsierak % 47,4 izan dira Bilbon eta % 21,1 Donostian; Gasteizen, berriz, % 11,1ko igoera izan da.

Itxita mantendu diren hotel-establezimenduak (%)

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	42,7	18,2	16,9	41,3	18,7	18,7	38,8	16,2	14,1	46,0	19,7	18,6
Otsaila	42,2	15,1	16,7	42,1	16,0	21,3	37,2	15,0	13,7	46,0	15,1	17,9
Martxoa	31,6	14,1	10,5	25,0	17,3	14,7	28,9	12,7	8,7	35,2	14,3	10,8
Apirila		91,0	5,7		92,0	13,3		87,7	3,5		93,2	5,6
Maiatza		69,6	6,7		73,3	12,0		66,1	4,7		71,3	6,9
Ekaina		39,8	5,9		38,7	9,3		40,0	5,6		39,9	5,2
Uztaila		17,6	5,4		26,7	9,3		18,3	4,7		14,9	4,9
Abustua		14,2	5,1		26,7	9,3		14,0	4,3		11,3	4,6
Iraila		15,5	4,9		28,0	9,3		16,5	4,7		11,7	3,9
Urria		20,2	6,3		29,3	9,3		20,4	5,1		17,9	6,6
Azaroa		38,4	10,6		36,0	9,3		34,3	10,7		42,2	10,8
Abendua		41,1	12,2		36,0	13,3		38,4	11,5		44,4	12,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hileko egun guztietan itxitako hotel-establezimenduen ehunekoaren bilakaerak agerian uzten du ezen COVID-19ari aurre egiteko hartutako murrizketek hotel-sektorean duten eragina, handia izanagatik ere, apur bat hobetu dela. 2021eko martxoan, hotel-establezimenduen % 31,6 itxita egon dira hileko egun guztietan, ehuneko 17,5 puntu gehiago 2020ko martxoan baino, eta 21,1 puntu gehiago 2019ko martxoan baino. Gipuzkoan establezimenduen % 35,2k inongo jarduerarik gabe jarraitu dute 2021eko martxoan, Bizkaian % 28,9k eta Araban % 25,0k.

Informazio-oharra

Hotelen ETHlren estaldura % **93,7koa** izan da martxoan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62